

**Audioaren erreferentzia:** [Bagoaz A1 B11 IXO](#)

**Maila:** A1

**Helburua:** Egoera jakinen aurrean, haserrea adierazteko gai izatea.

**Funtzioa:** Ezagun nahiz ez ezagunen artean haserrea adierazteko gai izatea,

**Azken ekintza:** Elkarrizketak non gertatzen diren identifikatu eta horien arabera, haserrea adieraztea, egin behar dutena ere adieraziz.

**Adierazpen linguistikoak:**

- BEHAR izan aditz-partikula, aginduzko aditz-forma sinpleak, ohiturazko aditz-aspektua.
- **Lexikoa:** pertsonak deskribatzeko adjektiboak, herrian edo hirian dauden tokiak (liburutegia, eliza, itxaron-gela..), haserrea adierazteko zenbait esapide.

## 1- IKUSI AURRETIK

### 1.1 Isilik mesedez!

Gaian sartzeko, binaka jarri eta zenbait biltzeko toki emanda, isilak eta zaratatsu direnak sailkatuko dituzte. Gero, azken atazan horietako zenbait toki identifikatu beharko dituzte.

## 2- IKUSI BITARTEAN

### 2.1 Zertaz ari dira?

Lehendabizi, bideoaren zati bat ahotsik gabe ikusiko dute, egoera horri buruzko zenbait hipotesi egiteko. Horretarako, bi galderen erantzun zuzenak identifikatuko dituzte. Ondoren, zati hori berriro ikusiko dute baino ahots eta guzti, egindako hipotesiak egiaztatzeko. Hemen galdera horien erantzun zuzenak:

Zertaz ari dira hitz egiten? **Beraien taldeko ikasleez ari dira.**

Nola dago Josu? **Oso haserre.**

### 2.2 A ze lan taldea

Bideo osoa entzun bitartean Josuk ikaskide bakoitzari buruz esandakoa identifikatu beharko dute. Hemen ariketaren erantzun zuzena:

Zer esan dute?	AINARA	INES	IKER
Ez dauka fundamenturik		X	
Itsusia da, baina jatorra	X		
Motza da			X
Sekula ez da etortzen klasera		X	
Galdera xebreak egiten ditu			X

## 3- IKUSI ONDOREN

### 3.1 Jarri arreta hizkuntzan

Bideoaren transkripzioa eta bi fotograma aurrean dituztela, batak eta besteak haserrea adierazteko erabili dituzten esapide eta egiturak identifikatuko dituzte, eta horrekin batera, esan dezatela nor norekin haserretu den eta zergatik. Hona hemen erantzunak:

	<p>AMAIA.— Ainara, zer?          JOSU.— Ba, ba,... Ainara itsusia da!          AMAIA.— <u>Nahikoa da, Josu. Erotu egin zara, ala?</u>          JOSU.— Ez daukate fundamenturik, Amaia. Horrela taldeko lana aspergarria izango da.          AMAIA.— Guk jarriko dugu gatza eta piperra.          JOSU.— Horiekin? Ufffff!          AMAIA.— Bai... <u>Eta ez zaitetz ergela izan, Josu. ez ergela eta ez matxista.</u>          JOSU.— Ainara itsusia da!          AMAIA.— <u>Berriz?</u>          JOSU.— Bale, bale, jatorra da bai... Baina, ez dakit; bueno, gure taldea oso eskasa da!</p>
	<p>LIBURUTEGIKO ERABILTZAILA.— <u>Isilduko al zarete behingoz?</u>          AMAIA.— Bai, barkatu!          JOSU.— A zer jenioa!          AMAIA.— Ez, arrazoi du: hona lanera etorri gara, ez berriketan egitera...          JOSU.— Ados, barkatu. Baina non daude besteak?          AMAIA.— Etorriko dira, lasai.          JOSU.— Bai, baina lanean hasi behar dugu... Uf!          LIBURUTEGIKO ERABILTZAILA.— <u>Ixo! Bestela, onena duzue kanpora ateratzea!!</u></p>

### 3.2 Nahikoa da!

Isilik egoteko tokietan gertatzen diren elkarrizketa laburrak irakurriko dituzte, eta zein egoeratan gertatu diren esango dute. Ondoren, haserrea adierazteko erantzuna prestatu eta binaka elkarrizketa denen aurrean antzetzuko dute. Elkarrizketa guztiak entzun ondoren, esan dezatela non adierazi duten haserre-itxurarik handiena.

ELKARRIZKETAK	Non daude?	Erantzuna
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hemen da.</li> <li>• Gainera gure ondoan jarri nahiko du.</li> <li>• Ez utzi ba.... jarri txamarra ondoko eserlekuan.</li> <li>• Hemen da apaiza.</li> </ul>	<p>elizan liburutegian</p>	<p><b><i>Ez da posible! Nahikoa da, ezta? Hemen isilik egon behar da.</i></b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Uf, eskerrak aurkitu zaitut!</li> <li>• Bai, bai.</li> <li>• Sartzeko ilara eta gero ilunpean ezin aurkitu nire tokia.</li> </ul>	<p>zineman antzokian</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat denbora daramagu zain? Ordubete?</li> <li>• Gutxi gorabehera.</li> <li>• Eta ez al diogu ezer esango? Kristoren tripako mina daukat.</li> <li>• Bai. Utzi niri. Aizu! Aizu! Ez alde egin. Noiz da gure txanda?</li> </ul>	<p>Itxaron-gelan ospitalean</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ene!! eskukoa itzaltzea ahaztu egin zait.</li> <li>• Joka hasten bada, ikusiko duzu. Norbaitek kargu hartuko dizu.</li> <li>• Oso dei gutxi jasotzen ditut. Ui! hara! Norbait deika!</li> </ul>	<p>edozein tokitan</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ba eztarikoa minez nabil.</li> <li>• Hobe duzu eztulka ez hastea.</li> <li>• Saiatuko naiz. Gozoki bat ekarri dut badaezpada ere.</li> </ul>	<p>zineman antzokian liburutegian</p>	

## TRANSKRIPZIOA

JOSU.— A ze taldea! Zu eta ni, tira, baina beste hirurak!

AMAIA.— Masterreko ikasleak dira, Josu

JOSU.— Bai, baina Inesek ez dauka fundamenturik, Iker motza da eta Ainara, Ainara...

AMAIA.— Ainara, zer?

JOSU.— Ba... ba... Ainara itsusia da!

LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEA.— Xxxxxxt!

AMAIA.— Nahikoa da, Josu. Erotu egin zara, ala?

JOSU.— Ez daukate fundamenturik, Amaia! Horrela taldeko lana aspergarria izango da.

AMAIA.— Guk jarriko dugu gatza eta piperra.

JOSU.— Horiekin? Ufffff!

AMAIA.— Bai... Eta ez zaitetz ergela izan, ez ergela eta ez matxista.

ETENA

JOSU.— Barkatu... baina Ines sekula ez da etortzen eskoletara, noiz ikusiko dugu?

AMAIA.— Ados...

JOSU.— Ikerrek oso galdera xebreak egiten ditu. Egia da ala ez?

AMAIA.— Bai...

JOSU.— Orduan, badaukat arrazoi pixka bat.

AMAIA.— Bai! Baina Ainara...

JOSU.— AINARA oso itsusia da!

AMAIA.— Berriz?

JOSU.— Bale, bale, jatorra da bai... Baina, ez dakit; bueno, gure taldea oso eskasa da!

LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEA.— Isilduko al zarete behingoz?

AMAIA.— Bai, barkatu!

JOSU.— A zer jenioa!!

AMAIA.— Ez, arrazoi du: hona lanera etorri gara, ez berriketan egitera...

JOSU.— Ados, barkatu. Baina non daude bestiak?

AMAIA.— Etorriko dira, lasai.

JOSU.— Bai, baina lanean hasi behar dugu... Uf!

LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEA.— Ixo! Bestela, onena duzue kanpora ateratzea!!

JOSU.— Bai, bai, barkatu, gauza batzuk komentatu behar ditugu eta onena kanpora atzeratzea izango da.

AMAIA.— Goazen ba!